

Ttiki-ttaka

euskaldunon aldizkaria, 28. Zk.




aunkibidea

HERRIZ HERRI

| | | |
|---------------------|--|----|
| Bastida |  | 5 |
| Biasteri | | 6 |
| Leza | | 8 |
| Lantziego | | 9 |
| Lapuebla de Labarka | | 10 |
| Mendabia | | 11 |
| Nabaridas | | 12 |
| Oion | | 13 |
| Paganos | | 15 |
| Zieko | | 16 |

ERREPORTAIAK

| | | |
|---------------------------------|---|----|
| Euskaraldia |  | 17 |
| Aisiadia gero eta euskaldunagoa | | 20 |
| Gazte Asanblada | | 22 |
| Hemendik harantz | | 24 |

ELKARRIZKETA

| | |
|--------------------|----|
| Xabi Muñoz Asensio | 25 |
|--------------------|----|

DENBORAPASAK

| | |
|--------------|----|
| Denborapasak | 27 |
|--------------|----|

NON GOGOA, HAN ZANGOA

| | |
|-----------|----|
| EKA eguna | 29 |
|-----------|----|

Hemen gatzoz **Ttiki-Ttakaren** urteroko aldizkariarekin. Ez da la erraza izaten euskara hutsean eta partaide askoren lanarekin horrelako proiektu bat egitea, baina aurten ere ekinaren ekinez hemen gatzoz.

Urtea luzea izaten da, eta hainbat ekintza eta ekimen antolatzen dira Arabako Errioxan gure kulturaren adierazgarri: dantzak, musika, bertsoak, hitzaldiak, filmak... horietako batzuk, aldi berean, gure hizkuntzaren normalizazioa dute helburu.

Normalizazioaren ildotik aipatzekoa da aurreko hamarkadetan denon ahotan entzuten ziren, “*gure hizkuntza salbatu, defendatu, berreskuratu, erasoei aurre egin, borrokatu...*” ahaztuxe ditugula. Duela urte batzuk horrelako mezuak ziren nagusi gure hizkuntzari erreferentzia egiteko, egoerak hala eskatzen baitzuen eta euskaldunok jokaera eta jarrera horien bitartez erantzuten baikenuen; dena den, oraindik ere, zenbaitetan mezu eta jarrera horien beharra sumatzen da.

Lan handia egin da Euskalgintzaren aldetik egun bizi dugun egoera lortzeko, eta garaiak aurrera 2018. urtean helburuak lortzeko bideak eta moduak aldatzen ari dira. Euskara ikastea garrantzitsua bazen, aldi berean erabilera ahaztu gabe, egun gure hizkuntza erabileran jarri da azpimarra, ikastea baztertu gabe noski, zeren ez da atzokoa “*Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenez ikasten ez dutelako, dakitenez hitz egiten ez dutelako baizik*” Jose Anton Artzeren esaldi famatua. Berak zioena gaur egun erronka nagusi bihurtu da.

Inoiz ez da egon euskara dakien horrenbeste jende Euskal Herrian, baina

ezagupenaren eta erabileraren balantza ez daude parean. Geroz eta jende gehiagok ezagutzen du euskara, baina kalean horrek ez du isla, hau da, dakitenez ez dute erabiltzen. Are gehiago, Euskal Herriko leku batzuetan beherantz egin du erabilerak. **Beraz, hor dago jo puntua: erabili, hitz egin, berba egin, mintzatu...**

Baina jakina da, era berean, hitz egitea jarduera kolektiboa dela, eta, horretarako, ohitura, aukera, baldintza egokiak, legediaren bermea eta administrazioak legea betetzea eta betearaztea beharrezkoa dela. Borondate politikoetatik eta itxurakerietatik aldendu eta bada garaia ekintza zehatzetara pasatzeko. Gure hizkuntza normalizatzeko, ez da nahikoa argazkietan “Denok euskararen alde” agertu eta gainontzeko 364 egunetan gaztelaniaz aritzea

Urratsak ez ematea eta askotan oztupoak jartzea. Bada garaia Arabako Errioxako udaletan legeak agindutako Hizkuntza Planak egunean jartzeko, horrek ere erabileran lagunduko duelako, gure ordezkariak euskaraz hitz egiteko, lanpostuetan euskarak benetako bermea izateko...

Bukatzeko esan dezagun elkarlana oso garrantzitsua dela euskararen normalizazioan, baina elkarlan zintzoa, arduratsua eta itxurakeriarik gabekoa, urteko 365 egunetan. Horretarako aukera argia izango dugu 2018ko azaroan egingo den Euskaraldian: denon artean gure eskualdeko euskararen erabilera indartu dezagun.



bastida.....

Santa Lucia eta San Gines

Aste Santua pasatu eta 40 egun geroago Bastidan bi erromeria ezagun ospatu ohi dira. Urteak daramatzaten ohiturak, bata, astelehenean Santa Luciara doan erromeria eta bestea, asteartean San Ginesera doana. Aurten, maiatzaren 7 eta 8an.

Santa Lucia, herriko mendebaldean dagoen basiliza da, Ebro ibaiaren ondoan, hain zuzen. Urteko egun honetan, goizeko getan herriko biztanleak enparantzan elkartu ohi dira bertara erromerian joateko. Bidean zehar, inguruan dauden mahastiak bedeinkatzen ditu apaizak eta kantuen eta ohituen artean basilizara heltzen da. Han, batzuk meza entzun bitartean besteak, hamarretakoa prestatzeaz arduratu ohi dira. Meza bukatutakoan, ohiturak agintzen duen bezala, Lucia Santuari kantu egiten zaio, ikusmena zaintzeko eskaera eginez. Kanpoan, udaltzainek prest izan ohi dute txokolatea, laranja, gazta eta ogi puska bat banatzeko. Helduentzat, elkarrizketa atseginak etaumeentzat natur inguruneazgozatzeko egun ederra. Atsedean handiegirik gabe, hurrengo eguneko egunsentiarekin, beste basilizara joateko



prestatu ohi dira bastidarrak. Toloño magaletan dagoen basilizara, alegia. Hau ere, natur ingurune paregabea.

Goizean, erromerian, mezara igo ohi da, aurreko egunean bezala. Han hamaiketakoa banatzen zaie herriko gazteei eta, eguerdi aldera, udalak antolatutako bazkaria banatzen da. Eskola eta ikastolako irakasleen laguntzaz arroza, oilaskoa eta izozkiekez dute hutsik egiten. Bazkalostea une lasaienetakoa da, herriko

koadrilak elkartzen baitira mahai inguruan.

Baina lasaitasun honek laster izaten du amaiera, dena prest baitago ondoren izaten den batailarako. Musikaren lehenengo akordeek, jendea mahaietatik altzarazten dute, elkar ardoz ziprizzintzeko momentua iritsi den seinale da. Gesaltzako txarangak ematen dio hasiera batailari eta arratsaldea girotzen du hiru orduz, kantu tradizionalak eta kolore gorria protagonista bihurtuta San Gineseko zelaietan. Egunari bukaera emateko, festara hurbildu direnen kotxe-karabana herrira abiatzen da, txaranga eta oinezko dantzarien artean. Hamarretarako txarangak amaiera ematen dio jaiari herriko plazan eta dutxa bero batekin agurtzen da eguna.

Santa Lucia eta San Gines, bi erromeria baino askoz gehiago.



Bi Lagun Handi Bezain Apal

Josemi eta Fausti, Fausti eta Josemi. Ordenak ez du apenas ezer aldatzen. Biak dira lagun handiak; biek dituzte antzeko zaletasunak; biak adin berekoak, gutxi gorabehera. Biak kulturaren gudariak direla esango nuke; biak bere jaioterriaren iraganaz maiteminduriko bikote aparta banandu ezina.



Amarengandik datorkio Josemiri argazki ederrak egiteko zaletasuna, bertako zero eta paisaiak inork ez bezala erretratatu dituen. Amaren lana oso ezaguna da bertan. Herritarroi argazki zaharrak eskatzen zizkien betirako gal ez zitezen. Horiek maiteminez jaso, eskaneatu, garbitu eta suspertzea ziren bere lan kuttunenak. Encarna andreak argazki zahar bezain ederrez osatutako bi liburu argitaratzea lortu zuen Josemi semeak lagundurik; hirugarrenean ari zela gaixotzen hasita, bere oroitzapen maitagarrienak galtzen hasi zen.

Josemik omenalditxoak egin nahi izan dio bere ama kuttunari, eta edizio berezia duen liburu ederra egin du horretarako; hainbat argazki zaharrez osatutako lan paregabea da, sentimenduz betea. Ama gaixotzen hasi aurretik ari zen harekin argazki zaharrok aukeratzen eta moldatzen. Amak utzitakoari jarraipena eman dio Josemik sekulako lana hartuta.

Goiz partean hitzordua nuen Josemirekin Faustiren etxe-museora abiatzeko. Txunditurik geldituko nintzela aipatzen zidan askotan, eta halaxe gertatu zait bizilagun bakar baten lan erraldoia ikusi dudanean. 12 urteko lan pausatua eta zinez pentsatua. Museo etnografikoa osatu du bere etxean. Gai desberdinak jorratu ditu, inguruarekin lotutakoak: mahastizaintzarenak, orduko jostailu zaharrak, ohiturak, orotariko tresnak, argazkiak (10.000 argazki inguru digitalizatuak bien artean!)... Iraganeko bidaia xumean izan gara hirurok harro eta pozik joan zaizkigunak oroitzuz eta gorazarre eginez.

Ados jarri dira bi lagunok euren lanek argia noiz ikusiko. Aurki, uztailaren bukaera aldera, edota abuztuaren inguruan jakingo dute Biasteritarrek bi lagunek egindako ahalegin eta lan izugarriaz. Josemik bere liburu ikaragarria Fausti lagunaren etxe-museoko patioan aurkeztuko du, eta, era berean, museoa bera ezagutarazi Faustik. Bertako ospetsu batek lagunduko omen die aurkezpenean, baina hori sorpresa da... Zaharrak berri. Bejondeizuela!





Udaberria iritsi zaigu azkenik, negu gogorraren ondorenean. Gogorra, alajaina, baina eskertekoa iazko lehorte latza igaro eta gero. Polit daude zelaia eta mahastiak. Lasai dirudite nekazariak San Markos eguna urruti samar geratzen baita. Izotzaren beldurra uxaturik edo, prakak bete lan dabilta mahatsondoen kimuak kentzen uzta oparoa izango delakoan.

Naturarentzat ez bezala, gizakiarentzat garai gogorra izaten da negua. Batzuek heriotzarekin lotzen dute, eta ez zaie arrazoirik falta; izan ere, lagun askok uzten gaituzte betirako loak abaildurik urtaro horretan. Bertakoek dioten bezala, neguak ez du esku hutsik alde egiten, eta, tarteka, gizakia bera eramaten du bizitzaren zikloa osatuz.

Aurtengo neguak lagun dezente eraman du, bata bestearen segidan, esan badaiteke. Azken negua izan da Concha eta Felixarentzat ere, bizitza oparo eta luzeari betirako amaiera emanda. Laurogeitaka urteko bi amona hauek otsailean agur egin ziguten, neguminean, negugorrian. Lagun minak eta errepublikanoak. Aurten ez dute bandera errepublikanoa ateratzeko betarik izan, apirila gertu-gertu bazegoen ere. Concha eta Felixa ez dira euren balkoietan izan; bai, ordea, euren banderak. Biak Conchak artilez egindakoak. Lagun biak, bata bestearen segidan, astebete eskasa pasata joanak. Lagun handien antzera elkarrekin egin nahi izan dute azken bidaia.

Conchak aspaldi galdua zuen ikusmena, baina ez zion sekula bere zaletasun handiari utzi, puntua egiteari, alegia. Lepo-berogarri andana egin zituen, kolore askotakoak. Lana amaituta, zera esaten omen zuen: “Errefuxiatuei bidali”. Senideei halakoxeak egingo zizkien seguruena, baina errefuxiatuentzako bufandak, batez ere, ehuntzen zituen maitekero. “Hotzak gaixo ez ditzan” gaineratzen omen zuen.

Felixak eta Conchak ondo ezagutzen zuten hotza zer den; askatasunik gabe bizitza zer den; jaioterria atzean utzitako lagunaren begiradaren tristura nolakoa den; errefuxiatua izatea zer den... Eta, seguruena, Conchak bere zaletasun kuttunenari noiz utziko zain zebilen, ehunduko zuen azken lepokoa noiz izango, alegia, gizarte zintzoago baten bidean geundekeelakoan; itxaropena, finean.

Leza abegitsua, xarmagarri eta baketsua izateaz gain, herri honetan bizi den jendeaz bereziki merezi du hitz egitea, eta kasu honetan aprobeztatuko dut berrogei urte irekita zeramatzan tabernari, eta, batez ere, bertan lanean izan direnei neure omenaldia egiteko. Laredo tabernak bere atea itxi zuen joan den otsailaren 28an, baina auzotarron bizipenek bizirik jarraitzen dute taberna barruan. Bertan herriko jende guztia biltzen ginen elkarrekin hitz egiteko; hori dela eta, neguko egunak herrian geratzen ginenoi atsegingarriago egiten zitzaizkigun. Plaza hutsik geratu da eta aspalditik han hemenka ikusten zen jendea giroa sortuz desagertu egin da. Baina inportanteena, zalantzarik gabe, haiek erretiroa hartu dutela, eta pozez gainezka ibiltzen direla herrian zehar guztion artean.




Aurten Gurasolagun ekimenaren baitan, buruhandiak egiteko tailerra burutu zen Lantziegon. Bi saio izan ziren, Biasteriko Sara Lunaren arte akademiako arduradunak gidatutakoak. Parte hartzaileak herriko zenbait ume eta guraso izan ziren, eta denek elkarlanean honako bi buruhandi polit hauek eraiki zituzten.

Tailer polita eta erraza izan zen; gainera, erabili beharreko materiala edonon aurki dezakegu. Ikusi hemen:

MATERIALA

- Kartoizko kutxa
- Egunkari zaharrak
- Kola
- Margoa
- Pintzelak



PROZEDURA

-Kutxa itxi eta burua sartzeko zulo bat egin beheko aldean. Aurreko aldean, berriz, ahoa izango den zuloa egin behar dugu. Horrek ikusteko balio izango digu; beraz, gure begiak non geratuko diren aurreikusi behar dugu.

-Ondoren, egunkari zaharrekin bolak egin eta kutxan pegatuko ditugu, eman nahi diogun itxura izan dezan. Kartoi zatiak ere erabil ditzakegu horretarako.

-Behin forma eginda, egunkari orriekin tirak egingo ditugu eta horiek, kolaz eta uraz osatutako nahasketa baten bidez, buruhandi osoan zehar itsatsiko ditugu, pintzelaren laguntzarekin. Hau lehortzen utzi behar da, gogortu arte.

-Erabat lehortzen denean eta gogortuta geratzen denean, margotu behar dugu.



Arabako Errioxako Toponimia eta Toloño Mendilerroa

Assa Ikastolak antolatzen duen Kultur Asteko ekintzen barruan, Jose Angel Chascoren hitzaldia egon zen. Berak aurreko 2017ko azaroan argitara eman zuen bere liburua “Sierra de Toloño, nexo de la Montaña y la Rioja Alavesa” hiru urtetan zehar egindako lanaren fruitua, gainera lan hori Euskaltzaindia eta Arabako Foru Aldundiaren babesarekin aurkeztu zen Gasteizen.

Jose Angel pertsona jakituna da eta bere hitzaldian horren berri izan genuen, hainbat eta hainbat datu, aipamen, mapa eta adibide eman zizkigun: “Arabako Errioxan **Kantauri Mendilerroa** izena eskoletako irakasleei entzunda ikasi dugu, aldiz Toloño Mendilerroa gure guraso eta aiton-amonei. Arbasoei entzunda ezagutzen dugu”.

Baina...



Urtero bezala, maiatza aldean, gure kultur astea antolatu dugu Mendabian. Gaur egungo Nafarroan batzuek euskararen kontrako jarrera sutua eta ulertezina erakutsi arren, guk aurrera jarraitzen dugu gero eta sendoago. eta kultur aste honen emaitza horren erakusle ezin hobea izan da.

Larunbatean, goiz goizetik etorri ziren Gareseko txalapartariak hasiera ematera egunari. Poliki-poliki txikienak joan ziren hurbilduz txalapartariengana eta konturatzerako, hasierako lotsa kenduta, profesionalak bezala ari ziren txalaparta jotzen. Jarraian Andosillako txistulariek eta Unai Trikitilariak ederki girotu zuten poteoa beste batzuk mahaia prestatzen ari zirelarik. Hirurak aldera, sabelak prest, sagardo-potxadaren ordua. Koilara esku batean, edalontzia bestean ekin genion bazkaltzeari platerrak eta kupela hustu arte.

Bazkalondo luzearen ondoren eta Larragako Joalduen azken orduko ausentzia paliatzeko, bat-bateko dantzariak bihurtu ginen eta musikak gidatuta dantza pare bat egiten ausartu ginen. dantzari txarrak baina ilusioa ez zitzaigun falta.

Hurrengo eguneko goiza txikienetzat izan zen, ipuin kontalari batek barreak aterarazi zizkien han bildutako umeei eta, hori gutxi izango balitz bezala, Mugitu abenturaren eskutik rokodromoan aritu ziren txikienak gora eta behera monitoreen agindupean.



MENDI Uruzuño


Kultur aste osoan zehar, San Joan Xar Iruñako auzo elkarteak ekarrita, izugarritzko erakusketa antolatu genuen udal erakustokian:

Nafarroako herri ihauteriak. Hor zeuden, bizirik egongo balira bezala Ziripot, Miel Otxin, Joaldunak edo momotxorroak besteak beste, gela zaintzen, ikara sortzen umeengan eta harridura helduengana. Oso harrera ona izan zuen erakusketak.

Ostrialean eta asteari amaiera emateko, Peio Joseba Monteano historialaria etorri zitzaigun XVI. mendeko Nafarroan euskara nola zegoen azaltzeko. Datu zehatzak baliatuz, Nafarroako populazioa ehuneko 80 euskalduna zela ziurtatu zuen inolako zalantzarik gabe eta elebitasuna ohikoa zela erriberako zonalde honetan.

Eta hori guztia izan da haurtengo kultur astearen kronika, XXII.a dagoeneko. Ederra izan da bizi izan dugun giroa. Asko entzun da euskara Mendabian aste honetan, beharbada elkarrekin anitz eta luze mintzatu garelako eta nola ez, ikasten ari direnak ikasi nahi dutelako. Txalotzekoa haien jarrera!

Nabaridas Arabako Errioxako herri txiki bat da, gutxi gorabehera 250 biztanlekoa, hain zuzen ere. Hainbat jai eta ospakizun ditugu. 2018. urtea berezia da herriarentzat, orain dela 350 urte Nabaridas Laguardiatik independizatu zen eta. Ekainaren 2an San Juan de Ortega da, gure zaindariaren eguna, eta aurten ekimen bereziak egingo dira. Hainbat gauza ohiko aurki ditzakegu gure jaietan, baina bereizgarrienak ondokoak dira: txanpinoi-dastaketak, mozorroak eta zurrakapote-dastaketa upategi zahar guztietan zehar trikitixa lagun. Bestalde, herrian hainbat ekimen eta ekitaldi egiten dira: herriko elkartearen eguna, Ardoaren Azoka Historikoa, eta “Las Mañas”. Azken hori abenduaren 7an ospatzen da, Esker Oneko jai egunean. Jendea herrian zehar ibiltzen da piztutako izpiliku-zuziak dituela, eta bukaeran sute handia egiten da; horrela, sutan uzten ditugu urtean zehar izandako gauza txarrak.



OIONGO SAN BIZENTE IKASTOLAK 40 URTE DARAMATZA EUSKARAREN ALDE LANEAN: ZUREKIN, GUREKIN, ELKARREKIN

*Lana eginez goaz aurrera,
kate horretan denok batera,
atsedenik hartu gabe.
(X. Lete)*

Ttiki-ttaka, eta batzuetan ttiriki-ttarraka ere bai, egin du ibilbidea Oiongo San Bizente Ikastolak. Berrogei urte pasa dira bertako guraso batzuk lehen pausoa eman zutenetik euskal heziketaren alde, euskararen alde. Eta hau ospatu beharra dago! Herriko “Bazterra” aretoan izan dugun erakusketak ibilbide horren isla izan nahi izan du.

Ikastola, beraz, familia hauen burugogorkeriaren ondorioz sortu zen eta zutik mantentzeko ezinbestekoa izan da lagun asko eta askoren lana. Eta merezi izan du, zalantzarik gabe, 1978tik hona ikastolako ate gorritik ehunka haur erdaldun sartu dira eta euskaldun irten. Egun 309 ikasle daude 0-16 urte bitartean.

Bestalde, San Bizente ikastolaren lana, barrura ez ezik herrira eta eskualdera zabaldu da. Inguruko ikastolekin elkarlanean dihardu eta baita erakundeen eskutik ere bai; are gehiago, kasu batzuetan, ikastola izan da zenbait elkarte berrien hazia, hala nola, Oiongo gazteak elkarte, Prudentzio deuna abesbatza eta Txandrio bertso eskola. Aipagarria ere bada, IKA euskaltegi eta ttiki-ttaka kultur elkartearekin duen harremana, izan ere, denok dugu helburu bera: euskara berreskuratzea (eta normalizatzea) Arabako Errioxan. Horregatik denek izan dute haien txokoa sanbizentetarren erakusketan.



Oingo San Bizente Ikastolako DBHko irakasle eta ikasleok ekimen berritzaile bat aurrera eramaten ari gara: ikasleen batzordeak. Proiektu honen ideia zehar konpetentziak nola ebaluatuko genituen hausnartzen hasi ginenean sortu zen. Alde batetik, norberaren ekimenerako konpetentziari pisua eman nahi genion eta bide batez, zeharkako izaera (diziplinartekotasuna) eman eta ikasketa-zerbitzuen planteamenduarekin lotzea zen helburua.



Ikasleek batzordeetan izena eman dute haien preferentzien arabera eta hamabostaldian behin elkartzen dira ofizialki, baina etengabe ari dira elkar-harremanean eta lanean, bai patio orduetan, bai saio arruntetan, baita haien denbora librean ere. Talde horietan adin ezberdinetako ikasleak elkartzen dira, zaletasun eta interesen arabera bilduak. Batzorde bakoitzak bere erreferentziatzko irakaslea dauka, ekintzak dinamizatu, proposatu eta bideratzen dituena.

Bestalde, batzordeen xedea proiektuak eta ekimenak diseinatu, planifikatu, aurrera eraman eta ebaluatzea da. Garatzen diren proiektuek zerbitzu izaera dute, izan ere, asmoa ikastolari, herriari eta komunitateari ekarpenak egitea da, esate baterako, Hezkidetza Batzordeak ikastola eta herri mailan antolatutako ekitaldiak edo Mantenu Batzordeak debalde konpondutako ordenagailuak.

Laburbilduz, esperientzia honen balorazioa oso positiboa izaten ari da. Hala nola, normalean akademikoki oso emaitza onak lortzen ez dituzten ikasle batzuen motibazioa nabarmenki piztea lortu dugu, adibidez, Baratzeko batzordeko zenbait ikasle haien aisialdi denboran baratza zaintzera bolondres etortzen ari dira eta izugarritzko interesa, inplikazioa eta trebetasuna erakusten ari dira.

Esan bezala, proiektu osoa ekiteko konpetentziaren ebaluaziora bideratuta dago, ikasleek batzordeetan eginiko lana (dominen ebaluazio-sistemaren bidez) ikasgai guztien emaitzetan isladatzen baita.

Hauk dira aukeragai ditugun batzorde ezberdinak: Jolastorduen dinamizazioa, Mantenu Batzordea, Hezkidetza, Agenda 21, Euskara Batzordea, Jaien Dinamizazioa, Elkarbizitza Batzordea eta Baratza. Aurten izandako arrakasta ikusita, hurrengo ikasturteetan batzordeen ideiarekin aurrera jarraitzea aurreikusten da eta emaitzak ikusita, behar bada oraindik indar gehiago jartzea norabide honetan.



www.sanbizenteikastola.eus

Azaroaren 23a Paganoseko biztanleek egutegian markatu behar izango dute urte honetatik aurrera. Izan ere, herritarrek dituzten erronken artean dago aspaldiko San Klemente jaia berreskuratzea.

San Klementeri zegoen dedikatuta bere garaian Paganosek zituen basiliza anitzetako bat eta, antza denez, harantz abiatzen ziren erromerian. Gaur egun desagertuta dago; beraz, Paganosekoek egin behar duten lehenengo ekintza da mendira joatea eta, adituen aholkuarekin, San Klemente basiliza zegoen lekua zehaztea. Behin lekua jakinda, azaroaren 23an erromeria egingo dute gaur egungo biztanleek eta inguruko herrietako nahi duten guztiek, jakina.

Argi dago Paganosekoak ausartak direla. Mendirako erromeria azaroaren 23rako prestatzea ez da txantxa. Baina, tira, San Blaseko jaiak negu gorrian ospatzen dituztela kontuan hartuta, San klementekoa entsegutzat hartuko dute otsaileko *in-klementziari* aurre egiteko.



Idiazabal Herriarekin Senidetze Eguna

Ekainaren 30ean Idiazabal eta Ziekon Senidetze eta Kultura-Turismo sustapena ospatzen ditugu. Aurten bosgarren urtea izango da gure topaketa. Egun horretan Idiazabalgo jendea Ziekora etortzen da eguna pasatzera. Bertan Idiazabal gazta nola nola egiten duten ikusteko aukera izango dugu, eta ardo-gazta dastaketak egongo dira; gazta erosteko aukera ere izango da, noski.

Hiruretan 600 lagunentzako herri bazkaria izango da. Horretarako goizeko ordu bietatik hasiko dira txahala erretzen herriko plazan.

Arratsaldean, Idiazalbago herritarrei upeltegi baterako bisita gidatua egingo zaie; ondoren afaltzera gonbidatuko ditugu. Egun berezi honetan ez da musikarik, dantzarik, ez eta alaitasunik faltako... eta, jakina, EUSKARA.

Gonbidatzen zaituztegu egun horretan Ziekora etortzera!!



Berrogei urte bete ditu Oiongo Ikastolak, beteta edo betetzear izango da Lapueblakoa ere, ez dira urruti ibiliko Bastidakoa, Lantziegokoa eta Vianakoa ere. Euskaltegia hasi zela ere hamarkada batzuk badira. Eskualdeko gainerako ikastetxeek ere euskara sustatzeko bideak jartzen urteak daramatzate ... bai, emaitza nabari da! Duela berrogei urte, zonalde honetan euskara galdu zela hainbeste mende igarota, euskara turista bizkaitar eta gipuzkoarren hizkuntza zen. Zorionez, egoera bestelakoa da orain. Hala ere, esan ohi den bezala, bada zer hobetu.

Ezagutza

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2016n EAEn bizi diren 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 33,9 euskaldunak dira, % 19,1 euskaldun hartzaileak eta % 47 erdaldun elebakarrak.

Gipuzkoako biztanleriaren erdia (% 50,6), Bizkaian laurdena pasatxo (% 27,6) eta Araban ia bostetik bat euskalduna da (%19,2).

Nafarroan 2016ko datuen arabera, euskararen ezagutzak gora egin du herrialdean: gaur egun, lau nafarretik batek ulertu behintzat egiten du euskara — %10ek ulertu soilik, eta %13k hitz egin ere bai —.

2016ko Arabako Errioxako datu zehatzik oraindik ez badago ere, Arabako en oso antzekoak izan dira azken urteotan. 2011n, 2 urtetik 14ra bitartekoen %60 pasatxo euskaldunak ziren, eta 15 urtetik 34ra bitartekoen artean ia %40. Azken horien artean euskaraz ulertzen dutenak, guztira, %65 inguru.

Erabilera

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, euskararen erabilera %7,9 hazi da 25 urteotan. EAEn, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %30,6k euskara erabiltzen dute neurri batean ala bestean:

- %20,5ek euskararen erabilera trinkoa egiten dute, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dute eguneroko jardunean.
- %10,1ek euskara erabiltzen dute, baina erdara baino gutxiago.

Gainerako guztiek, %69,4k, erdara erabiltzen dute beti edo ia beti. Kontuan hartu behar da, hala ere, azken horien artean badela multzo txiki bat (%6,1) oso gutxitan bada ere euskara ere erabiltzen duena.

Soziolinguistika Klusterraren emaitzak are apalagoak dira. Eta Araban %4ko erabilera aitortzen dio euskarari, eta halakoxeren bat dagokio Arabako Errioxari ere.

Egia esan, euskaraz egiten den lekuetan, ezagutza adin guztietan handiagoa da. Dena den, hemengo datuak kontuan izanda, gehixeago entzun beharko litzatekeela dirudi: zergatik ez dugu gehiago erabiltzen euskaldun sentitzen bagara?

Kontziente al gara euskaldun egiten gaituena euskara dela? Kontziente al gara euskara hizkuntza zapaldua eta gutxitua dela? Euskara ez dagoela salbatua? Gure beharra duela? Oraindik ere, euskaldunon euskaraz egiteko eskubidea ez dela errespetatzen leku eta egoera askotan?...

Zenbat kostatzen zaigun hizkuntza ohitura aldatzea, gaztelaniaz ohitu bagara norbaitekin! Taldean, euskaraz ez dakien bat badago, zortzi izan arren eta euskaraz hitz egin nahi arren gainerakoek, gaztelaniaz egiten dugu. Euskara ikastetxean jaso dugu batez ere, zonalde honetan; egunean sei ordu, gutxi gorabehera, gainerako guztiak (kalean, etxean ...) gaztelaniaz, nola izan, bada, erraztasun bera bi hizkuntzetan! Helduak izaten dira erreferenteak urteak aurrera egin ahala, ez ikastetxea, eta helduen mundu hori hemen erdalduna da. Berrogei urte euskara zabaltzen baina lan munduak ez du kontuan izan, ez eginiko esfortzua, ez euskara. Administrazioa ere gutxienekoetara ez da iritsi.

Hala da, bai: hemengo gizabanakoei ezer gutxi leporatuko digute, ia ez egotetik hainbeste euskaldun baikaude, baina administrazioak ez ditu behar beste indartu legeak euskara sustatzeko, eta, gainera, eginiko legeak ere ez ditu bete, ezta betearazi ere.

Makina bat lege bururatzen zaigu erabilera hobetze aldera, baina gobernuak nahiago du bide hori ez bultzatu, nahiago du bidea gizarteak egitea.

Gizartea aktibatzeke lanetan urteak daramatzana Topagunea da. Euskara gehiago erabiltzeko bidea egiteko sortutako taldea dugu Topagunea. Oraingo honetan, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak sustatuta, erakunde hau euskaraz gehiago egiteko jolas batekin datorkigu: *Euskaraldia*.

2018ko abenduaren 3aren aurreko hamaika egunetan gauzatuko da jolasa Euskal Herri osoan. 11 egun horietan, batzuk *ahobizi* txapak jantzita eta beste batzuk *belarri prest*, euskaraz norekin ari gaitzkeen identifikatu, eta erabilera areagotzen ahaleginduko gara.

Jolas honetan euskaraz egiteko gai garenok eta ulertzeko gai garenok parte hartzeko aukera izango dugu erabileraren onurarako, ulermenak desblokeatzen baitu erabileraren auzia.

Bi protagonista nagusi, beraz: ***ahobizi*** eta ***belarri prest***.

Ahobizi zara

- Euskaraz egingo diezu ulertzen duten guztiei. Edonon, edonoiz eta ulertzen duen edonorekin arituko zara euskaraz.
- Ezagutzen ez dituzunekin lehen hitza euskaraz egingo duzu, eta ulertzen baldin badute, hortik aurrerakoak ere.

Ahobizi izateak ez du euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin zerikusirik, jokaerarekin baizik! Ahal duzun guztietan euskara erabiltzeko prest? Ahobizi zara!

Ahobizi izan daiteke...

16 urte baino gehiago izan eta...

- Euskaraz ongi moldatzen dena eta hamaika egunetan euskaraz egingo duena ulertzen duten guztiekin. Izan daiteke orain arte horretan saiatu den kidea, edo hizkuntza jokaera orain aldatzea erabaki duena.

Tiki-taka 2018

- Euskaraz erdizka moldatzen dena baina prest sentitu eta hamaika egunetan euskaraz egingo diena ulertzen duten guztiei.

Belarriprest zara

- Euskaraz dakiten guztiei zuri euskaraz egiteko gonbitea egingo diezu. Euskara ulertzen duzula adieraziko diezu eta zurekin euskaraz hitz egin dezatela eskatu.
- Zuk euskaraz edo erdaraz erantzungo duzu, baina zuri euskaraz egiteko eskatuko duzu.

Belarriprest izateak ez du euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin zerikusirik, jokaerarekin baizik! Dakienari zuri euskaraz hitz egiteko gonbitea egin nahi diozu? Belarriprest zara!

Belarriprest izan daiteke...

16 urte baino gehiago izan eta...

- Euskaraz ongi egiten duena baina erdaraz hitz egiten duen zenbaitekin (nahiz eta ulertu) ez du hamaika egunez euskaraz soilik hitz egiteko ariketa egin nahi; edo ez da prest sentitzen, adibidez, orain arte erdaraz izan dituen harremanak euskaraz izateko pausoa emateko.
- Euskaraz gutxi gora behera hitz egin dezakeena baina ez dena ausartzen.
- Euskaraz ulertzen duena baina ez dena hitz egiteko gai sentitzen.

Euskaraldiaren helburua ez da, noski, hamaika egunez bakarrik areagotzea erabilera, arnas luzeko lan ildo da euskararen erabilera bezalaxe. Momentuz, Arabako Errioxako herri gehienetan euskaraldia bultzatzeko lan batzordeak osatu dira. Badator!



Aisialdia Geroz eta Euskalduanagoa

Hizkuntza bat ongi ikasteko, sarritan, askorekin eta modu askotara erabili behar da.

Gure nerabeek hizkuntza bat baino gehiago ongi menderatu dezaten nahi dugu eta geurea, **EUSKARA**, are geihago; horixe da gure seme-alabentzat nahi duguna, ezta? Jakina!

Gure nerabeek, ez dute ez, aukera askorik euskaraz gozatzeko; **Ez da harritzekoa! Izan ere**, dute ikastetxetik haratago euskaraz aritzeko aukera askorik... Horixe da **KALEAN BIZI-BIZI** egitasmoaren sorburua; gure seme-alabei eskola orduz kanpoko jarduerak **euskaraz** eskaintzea hizkuntzarekiko harreman **ludikoagoa** izan dezaten.

Honetan dihardute **KALEAN BIZI-BIZI** ekimenarekin bat eginez Arabako Errioxako hainbat eskola orduz kanpoko jarduera eskaintzen dituzten ondorengo taldeek eta norbanakoek.

- **LUZERNA** futbol taldea
- Oion, Bastida, Biasteri eta Lapueblako Euskal **PILOTA ESKOLAK**
- Bastidako **MARRATE** musika eskola
- Oiongo **IRULE** kultur elkarte
- **MUSIKASI** Oiongo musika eskola
- Biasteriko **SARA LUNA ART** arte irakaskuntza
- Samaniegoko **LA BLANCA ATHLETISMO** taldea
- Lantziegon dantzak eskaintzen dituen **Ana Blanco**
- Bianako **PATINAJEA** 76-80 taldea.
- Ikastetxeetako **JANTOKI** eta **AUTOBUS** begiraleak.

Euren saioetan euskara sustatzeko konpromisoa hartua duten begirale batzuen bizipenak ditugu honakoak:

SILVANO (Matxinbrao Bastidako pilota eskola eta Bastidako areto futboleko entrenatzailea): *“Hurrei dena ulertzen diedan arren ez naiz ausartzen euskaraz egitera, baina astero-astero asko erabiltzen ditugun esaldiak prestatu eta pixkanaka erabiliz, nahiz hurrei laguntza eskatuaz ari naiz pixkanaka euskara erosoago erabiltzen. Izugarri laguntzen didate nire maisu txikiek”*

ARITZA eta ISABEL (La Blanca Athletismoa, Samaniego eta Logroño): *“Ikasle denek euskaraz dakitenez guztia euskaraz egiten diet. Modu horretara entrenamenduak euskaraz egiten ditugu nirekin daudenean. Taldea banatzen dugunean, aldiz, eta Isabelek euskaraz ez dakienez, eguneroko errtuinak zerrendatuz eta pixkanaka erabiliz euskaraz berak ikasteaz gain, erabilera bermatzen dugu”.*

ANE GIBAJA (Patinajea, Biasteri,): *“Patinatzen irakasten diedan hurrek bezala, ikastetxeko euskara maila daukat beraz, erabiltzea kostatzen zait, eta eurak orain ikastetxean asko erabiltzen dutenez, ni baino erosoago sentitzen dira hitz egiten. Horretaz baliatuz eta saio aurretik esalditxo batzuk prestatuz, modu naturalean, **mintzalagun** estiloan lotsa galtzeko egiten ditugu patinaje saioak”.*

Ttiki-ttaka 2018

SARA LUNA ART (Biasteri): “Polita da haurrak euskaldunak direla ezagututa, eta erabiltzeko aukera gutxi dutela jakinda, hizkuntzarekiko eta gizarteko zailtasunak gainditzeko arnagune moduan artea euskaraz eskaintzea”.

JANTOKIETAKO BEGIRALEAK (Gehienak euskaraz aritzeko zailtasunak): “Egunero-egunero agindu berberak ematen ibili behar gara: **Jan astiro!, besterik nahi?, kontuz bero dago-eta, mutxikatu ondo...** Ez da ezer kostatzen honako esaldiak errepikatzea, gainera, erabileran eragin dezakegu. “Niri eman krocketak eta ez ariketak!” Bezalako esaldiak jantokiko paisaian txertatuz umore punttu batez girotu dezakegu jantokia.

Modu honetan, argi ikusten da jardueretan begirale nahiz partaideek euskara maila ezberdina izan arren, helburu eta landu beharreko irizpideak egokituz, asko lor dezakegula pausu txikiak eginez.

KALEAN BIZI-BIZI

- Eskualdeko guraso elkarte zein ikastetxeekin elkarlanean.
- Eskola ordutik kanpoko jarduerak euskaraz eskainiz.
- Herrietako jardueren arduradunek begiraleei konpromisoa eskatuz .
- Egitasmoa babesten duten kuadrilako Euskara zerbitzua eta Ttiki Ttakaren laguntzaz

ESKUALDEKO AISIALDIA GEROZ ETA EUSKALDUNAGOA DA



Gure eskualdea herri txikiz osatutako eskualdea da, hamaika mila biztanle baino gehiago eta hamabost udalerrri. Sakabaneta honek eragina izaten du onerako eta txarrerako; gazteen kasuan elkartu eta gauzak antolatzeko zailtasun gehigarria da. Hala eta guztiz ere, eskualdeko gazteek elkarrekin batu eta Lurrikara ekimena antolatu eta egin zuten, hilabeteetako lanari esker.

Aurtengo udaberriari proiektu berri baten sorrera jakin izan dugu: “Arabako Errioxako Gazte Asanblada”. Beste lurralde askotan gertatu diren “udaberriak” bezala, hemengo gazteak ere olatua hartzen hasi al dira? Galdera hau eta beste batzuk erantzun dizkigu talde honen bultzatzaileetako batek.

Zer da Arabako Errioxako Gazte Asanblada?

Arabako Errioxako Gazte Asanblada, izenak dioen moduan, Arabako Errioxako herri ezberdinetako gazteek osatutako talde bat da, asanbladaren bitartez modu horizontalean gestionatzen dena.

Zergatik sortzen da G. Asanblada? Aurrekaririk heldu da?

Asanblada hau sortu da eskualdeko hainbat gazteren ekimenaren ondorioz. Duela urte batzuk hasi ginen bilerak egiten eta gure eskualdearen inguruan hausnartzen eta eztabaidatzen. Hasiera batean, aisialdi talde bat sortzea pentsatu zen eta Inguma izena jarri genion, ekintzaren bat aurrera eraman genuen baina denborarekin konturatu ginen praktikan gazte asanblada bat ginela eta bide horretatik jarraitu behar genuela.

Hainbat arazo identifikatzen genituen, besteak beste, euskararen egoera, aisialdirako eskaintza eskasa, herrien arteko kohesio edo harreman gero eta urriagoa, gazteek gestionatutako proiektu eta espazioen falta, turismo ereduez-jasangarria, genero banaketa handia gizartean eta emakumeen egoera kaxkarra, arrazismoa eta kultura ezberdinen arteko harreman eskasa... Arazo horiei erantzun bat emateko sortu da Gazte Asanblada.

Hainbat eredu eduki ditu asanbladak, batez ere, Arabako Errioxatik kanpo. Esan beharra dago, hasiera batean batzen hasi ginenak Euskal Herriko hiri ezberdinetan ikasten ari ginela eta hiri horietan zeuden esperientzia ezberdinak izan genituela eredu, hala nola, ikasle mugimendua, gaztetxeak eta bestelako proiektu autogestionatuak.

Eskualdeari dagokionez, aipagarria da duela denbora bat sortutako Biasteriko Gazte Asanbladaren sorrera edota Lurrikara bera. Proiektu hauek erakusten dute azkenaldian Arabako Errioxan gauzak aldatzen ari direla, eta gazteok, gure kabuz antolatuta, gure inguruan eragiteko gaitasuna daukagula.

Nork har dezake parte G. Asanbladan? Zer egin beharko luke gazte batek parte hartzeko? Kontakturik? Emailik...

Printzipioz ez dago inolako mugarik gurekin parte hartu ahal izateko, gazte sentitzen den oro etor daiteke asanbladetara eta gurekin parte hartu.

Momentuz ez dugu kontakurako baliabide finkorik kanpora begira, baina asmoa da sare-sozial zein emailaren bidez hutsune hori betetzea etorkizunean.

Parte hartzeko modurik errazena asanbladako partaideren batekin zuzenean harremanetan jartzea litzateke, eta inor ezagutu ezean, hilabeteroko lehenengo larunbatetan goizeko 10:00etatik aurrera Biasteriko Gazte Lokalean (El Collado izeneko parkearen bukaeran)

Tfiki-ffaka 2018

asanblada orokorra egingo da hemendik aurrera, bertara edozein hurbil daiteke proiektua ezagutu eta gurekin parte hartzera.

Zein izan da orain arte egindako lana?

Esan beharra dago asanblada ofizialki sortzearen erabakia nahiko berria dela, eta ordutik, asanblada ireki bat deitu genuela, non espero baino askoz ere jende gehiago hurbildu baitzen guregana. Orain, asanbladaren funtzionamendua definitzen eta epe laburrean landu beharreko gaiak zehazten dihardugu.

Etorkizunean zein asmo ditue do izan ditzake G. Asanbladak?

Gure asmoa da, aipatutako arazo horiei erantzun bat ematea ekimen eta ekintza ezberdinen bitartez. Orokorrean, gure inguruko herriez berdinetako gazteen arteko harremanak sendotzea, eremu euskaldunak sortzea, gazteriarengan ohitura militanteak zabaltzea eta autogestioan oinarritutako proiektuak sustatzea izango lirarteke gure helburu nagusiak.

Euskararen normalizazioan, zein da G. Asanbladaren jarrera? Bilerak zein hizkuntzatan egiten dituzue? Euskaraldian parte hartzeko asmorik ba al duzue?

Hasieratik, euskararen gaiak pisu berezia izan du gure taldean. Gureustez, Arabar Errioxako gazteok arduraren berezia dugu euskararekiko, euskalduna den lehen belaunaldia garelako eskualde honetan. Normalizaziora bidean, gure papera oso garrantzitsua izango da hurrengoentzako eredu izango garelako, eta gune euskaldunak sortzeko aukera dugulako.

Orain arte, asanbladak euskara hutsean egin izan ditugu partaide guztiak euskaldunak izan garelako, baita aktak jaso ere, eta modu batean edobestean, gure arteko harremanak euskaldundu ditugu baita asanbladatik kanpo. Hortaz, asanblada bera gure artean harreman euskaldunak sortzeko tresna ere bada.

Euskaraldian parte hartzeko asmoa badago, baina oraindik ez dugu argi Gazte Asanbladaren papera zein izan daitekeen herriz-herri egingo den ekimen horren barruan. Baliteke *Euskaraldia* prestatzen ari diren herri ezberdinetan asanbladetako kide direnak parte hartzea, baina ez dakigu asanblada moduan parte hartuko dugun.



Duela bi urte hasi zen Arabar Errioxa errefuxiatuei laguntzeko bidaiak antolatzen. Bidaia horrek erakutsitakoa, esperientzia ahaztezinak eta errefuxiatuek kontatutako istorioak direla eta, laguntzen jarraitu nahi genuela konturatu ginen. Errefuxiatuek bizi duten egoera oso larria da: hotza, elurra, euria... errefuxiatuen egunerokotasunean bizirik daude, eta horiek beren bitzta oztopatzen dute.

Europako lurralde ugariatako egoera ikusi ostean, 2018an proiektu berriari izena eman genion : Hemendik Harantz. Izenak dioen bezala, Euskal Herritik errefuxiatuenganako mugimendua adierazi nahi du. Proiektu horren oinarria, Arabar Errioxan biltegi bat sortzea eta laguntza guztia zentratzea da, geroago errefuxiatuak dauden tokietara iristeko helburuarekin. Baita Arabar Errioxako jendeari bertako egoera ezagutzeko aukera ematea ere.

Esan bezala, errefuxiatuen beharrak asko dira eta gure intentzioa ahal dugun bezainbeste laguntzea da. Hortaz, biltegian mota askotako gauzak jasotzen ditugu: arropa, zapatilak, lo zakuak, motxilak, berokiak, eskularruak, mugikorrak... Hau guztia antolatzea ez da erraza; horregatik, hainbat kide biltzen gara (normalean ostiral arratsaldeetan). Bildutako arropa zein gauza guztiak aukeratu, antolatu eta prestatzen ditugu kutxetan, gero bidalketak egiteko.

Biltegi az gain, proiektuak bizi izandako esperientziak ezagutzeko aukera ematen du, Horretarako, boluntario lanean ibilitakook hitzaldien bidez egindako bidaiak kontatzen ditugu, komunikabideek ezkututzen duten errealitatea azaleratzeko xedearekin, errefuxiatuek nahi eta behar dutelako jasaten ari diren errepresio guztia ezagutzea.

Hitzaldiez gain, Hemendik Harantzetik bestelako ekintzak prestatzen ditugu, hala nola, elkartasun pintxo-poteak, dokumentalak proiektatzea, bilketak... ekintza horien bitartez, batetik errefuxiatuen egoera salatu nahi dugu, eta, bestetik, ekonomikoki oinarri bat izan, horren bidez bidalketak egiteko eta boluntario joan nahi dutenei bidaia errazteko.

Animatzen zaituztegu ekintza horietan parte hartzera eta Arabar Errioxatik ahal bezain beste laguntza bidaltzera, errefuxiatuek gure laguntza behar dutelako.



Izena: **Xabier Muñoz Asensio**

Jaioteguna: **1979-05-25**

Bizilekua: **Orio**

Lanbidea: **Gorputz hezkuntzako irakaslea**



Kontaguzu zure bizitzaz zertxobait eskualdera etorri baino lehen.

Bada, hara joan aurretik Sopelan bizi nintzen. Orduan, nire zaletasunak kirolak, lagunekin parrandan aritzea eta hondartzaz disfrutatzea ziren. Esku pilotan lehiatzen nuen eta magisteritza ikasi ostean irakaskuntzan lanean hasteko aukeraren zain nengoen.

Noiz etorri zinen Arabar Errioxara? Zertara?

2003ko urtarrilean Bastidara joan nintzen. Espero nuen deia hura izan zen. Ez dut inoiz ahaztuko Bearen telefono dei hura, kar-kar... Berez, gorputz hezkuntza eta ingeleseko 15 egunetako ordezkapen bat egitera joan nintzen baina, denborarekin, nire bizitzako garairik aberasgarrienetakoa gauzatzera joan nintzela ohartu nintzen.

Zer nolako giroa topatu zenuen Arabar Errioxan euskararekiko?

Hasiera batean, Euskal Herriaren aniztasunaz jabetzeko oso baliagarria suertatu zitzaidan. Euskara Euskaltegi, Ikastola eta Eskolen hizkuntza bezala topatu nuen, euskal kulturak eta euskarak kalean ez zuten apenas presentziarik. Hori bai, euskararen aldeko pertsona oso finak ezagutu nituen bai bertakoak zein Arabar Errioxara joandakoak.

Bastidan 9 bat urte eman nituen eta aukera ahaztezinak bizi izan nituen: *Araba Euskarazeko antolakuntza*, KORRIKAKo igarotzeak, Ttiki-Ttakan parte hartzea... Laburrean, euskara eta euskal kulturaren “lokartze baten esnatzea” bizi izan nuen.

Nola hasi zen zure harremana Ttiki-ttaka elkartearekin?

Bastida Ikastolako irakaslea izanik, Ttiki-ttakan parte hartzeko gonbitea jaso nuen. Bilera horietan, Bastidako egoera berean ziren hainbat kide eta herriren errealitateak ezagutu nituen. Antzekotasun handiak ziren, kultura bat suspertzeko behar handia eta, era berean, pertsona batzuen gogo sutua.

Elkartean egondako urteetan, zer lortu zenuten? Zein ziren erronka handienak?

Halakoetan, lorpenak neurtzea oso zaila da. Nik uste Ttiki-ttakak norabide egokia zabaldu duela eskualdean. Herrien ilusio handiko ekintza horiek batzeko lana burutu du eta burutzen ari da. Euskal kulturaren topagune bat eta informazio zein koordinazio iturri aproposa da.

Erronkarik zailenetakoa instituzioen (Udalak, Foru Aldundia...) inplikazioa lortzea zela gogoratzen dut, eta, urte horietan, Errioxako Kuadrila honetan “bustitzearen” lorpena goraipatuko nuke.

Tiki-taka 2018

Horrek beste instituzio batzuen parte hartzean ere lagunduko zuen.

Gaur egun zertan zabilta?

Egun, Orion bizi naiz. Leirek eta biok gure “kabia” finkatzea erabaki genuen, eta konturatu orduko Amets eta Maddi koskortuak ditugu.


Profesionalki, harreman-psikomotrizitatean murgildurik nabil, eta ikasitakoa gorputz hezkuntza arloaren bitartez zabaltzen jarduten dut.

Jarraitzen duzu Arabako Errioxarekin harremana izaten?

Bai, urtero oporralditxo bat edo beste egiten dugu. Lagunak bisitatzeko eta paraje eder horietaz gozatzeko aprobetxatzen dugu.

Zer da gehien faltan sumatzen duzuna?

Bertan, bizipen on ugari izan nituen. Arabar Errioxarren bizitza bera ulertzeko patxada hori, Bastida Ikastolan lankideen artean izandako konfiantzazko lan-giro hura, lagunak eta gure kultura suspertzeko anonimoen kemen hori aipatuko nituzke.



denborapasak

txisteak

Elefante eta inurria igogailuan zeudela, zera galdetu zion inurriak:

-Zenbat urte dituzu?

-Hiru urte ditut. Eta zuk, zenbat?

-Neuk ere hiru ditut, baina gaixorik ibili naiz.

-Ama, gaur ez dut ikastolara joan nahi.

-Zer gertatzen zaizu, bada, Aitor, seme maitea?

-Ba, hasteko logura naiz; bestetik, aspertu egiten naiz, eta, azkenik, barre egiten didate.

-Derrigor joan behar duzu, izan ere, zure eginkizuna da; 35 urte dituzu, eta, gainera, ikastolako zuzendaria zara.



Bidean aurrera doaz bi sagutxo paseatzen, eta horien buru gainetik saguzarra igarotzen da:

-Zer demontre da hori? -galdetzen du bietako batek-.

-Senargaia, pilotua da-eta.

Neska txiki batek aurrean duen mutil handi bati:

-Aizu, jauna, esango al didazu zenbat falta zaidan metrora iristeko?

-jakina! ... Bada, hamar bat zentimetro edo.

Lagun bat animalia-dendara sartu zen, eta loro elebiduna eskatu zuen. Dendariak hanketan soka bana loturik zituen bat erakutsi zion.

-Ezkerreko sokatik tira eginez gero, euskaraz hitz egingo dizu, eta eskuinekotik tira eginez gero, katalanez. -azaldu zion saltzaileak-

-Aizu, eta bietatik batera egiten badiot?

-Zozoa halakoa! Lurrera eroriko naiz mokoz aurrera! -erantzun zion loroak.



Eragiozu kaskoari!


| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 2 | | | 7 |
| 2 | | 9 | 6 | | | | | |
| 1 | | 8 | 4 | | | | | |
| | 9 | | 1 | 6 | | | | |
| | 5 | 6 | | | | 9 | 3 | |
| | | | | 4 | 5 | | 8 | |
| | | | | | 6 | 1 | | 5 |
| | | | | | 1 | 3 | | 9 |
| 9 | | | 2 | | | | | |



Zoparik nahi?

B O L I G R A F O A A L H P R R Y T L I
 A M K N R Y T K Q S T Y J R T R R A G b A
 S L M P A R G I A T Y A M L E P S O M E
 A P Q U L O E N P K T Q E T A I K L O T H V
 W H B J I K N O P R X M P N A K L O T H V
 Q S R O R O D L F H R O I L P X E R A P
 A R A B K W I F I A Y E K R O P G H I L A
 U A V M U A L H P R R U T A L P Y A O A
 L O O R A T Y J R T L G R O F T Q P T L
 I E E T D R O R H A L Y H E A X Y T R L E
 A K G A E F K E G T O Ñ Q A R T A R R A G
 R T Y J R T O A R A Ñ F B N E T O L O E R
 O R Q Ñ N U I T A R P T Ñ Q A K B P E R R
 G H Y Ñ O U L P O E L E I H O A M B G R E
 Z A K X A B M O E A T W A L H P J V Y E
 O P Y A M L E P H G Y G Y K Q Y A I Q L
 B A L H P K R O R D E N A G A I L U A W


**ARBELA / ARGIA / MAHAIA / AULKIA / ORDENAGAILUA / KOADERNOA / KALKULAGAILUA
 / BOLIGRAFOA / KONPASA / ERREGELA / BOZGORAILUAK / ATEA / LEIHOA / WIFI**



non gogoia, han zangoa



Tfiki-ffaka 2018




Tiki-taka 2018



Ttiki-ttaka 2018





tiki
taka



*Bazkide izan nahi baduzu, behealdeko fitxa bete ezazu eta bidali gure helbidera. Kuotari dagokionez, 20 euro dira urtean eta gazteentzat borondatea. Honen truke bidaliko dizugu aldizkaria, informazioa eta ekintza eta bileren berri. **Egin zaitez bazkide!***

Deiturak _____ Izena _____

Jaioteguna _____ Helbidea _____

Herria _____ Pta.Kodea _____ Tfnoa _____

Banku-Aurrezki kutxa _____ Sukurtsala _____

KK edo libreta zkia _____

Data _____

Sinadura